Mitoa ala egia?

Danel Pascualek erromatarrek gure lurretan izandako presentziaren berri emango digu ikusgelako bideo batean; horri tiraka, mitoei buruz hausnartuko dugu.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Mitoei buruzko egiazkotasunaz hausnartu.**
- **Ulermen-galderei erantzun**
- **Erregistroen ezaugarriei erreparatu.**
- **Salbuespena adierazteko baliabideei erreparatu.**
- **Mitoei buruzko podcasta egin.**



Adimen artifizialak sortutako irudia

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Mitoa ala egia?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Esan beheko baieztapenak mitoa ala egia diren, eta kontatu benetakoa zela uste zenuen mito bat euskaltegiko foroan.

Baieztapenak

a) Vikingoek adardun kaskoak erabiltzen zituzten gudetan.
b) Napoleon baxu-baxua zen.
c) Erdi Aroan, jendeak uste zuen Lurra laua zela.
d) Walt Disney kriogenizatuta dago.
e) Einsteinek ez zituen matematikak gainditu.
f) Piratek partxea eramaten zuten begi batean, gaiztoago emateko.

Txikitan uste nuen egia zela _____

Gerora, jakin nuen mito hutsa edo gezurra zela _____

Eman kideek esandakoari buruzko iritzia foroan; erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

BAKARKA

Ikusi bitartean

2. Zer diote erromatarrei buruz?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Ikusi bideoa, eta erantzun galderei.



Ikusgela, CC BY-SA 4. via Wikimedia Commons

mundua ulertzeko bideoak ikusgela

Erromatarrak euskal lurretan

1. Testuan zein ideia nagusi defendatzen da erromatarren presentziari buruz Euskal Herrian?

a) Euskal lurralde guztietan erresistentzia militar antolatua egon zela.
b) Erromatarren eta bertakoen arteko harremanak askotarikoak eta ez-linealak izan zirela.
c) Erromatarrek kostaldea bakarrik kontrolatu zutela, interes ekonomikoengatik.

2. Zertarako aipatzen du egileak Estrabonen testua?

a) Erromatarrek euskaldunak militarki garaitu zituztela dokumentatzeko.
b) Antzinako kanpo-begirada batek bertoko biztanleez nolako irudia zuen erakusteko.
c) Euskal Herriko bizimodu erromatarra xehe azaltzeko.

3. Zer ondorio izan zuen Hanibalen espedizioak erromatarren estrategian?

a) Erromatarrek saihestu zuten etsaiek Pirinioak zeharkatzea.
b) Erromatarrek Afrikara itzultzea erabaki zuten, hornidura faltagatik.
c) Aukera baliatu zuten penintsulan sartzeko eta bertan finkatzeko.

4. Zergatik kokatu zituzten erromatarrek herrigune gehienak hegoaldeko lautadetan?

a) Defentsarako, mendialdea baino egokiagoa zelako.
b) Inguru haietan komunikazio-bide militar gehiago zeudelako.
c) Baldintza hobeak zituztelako nekazaritzarako eta ustiapen ekonomikorako.

5. Nola azaltzen du testuak erromatarren konkistarik gabeko eremuen existentzia?

a) Horrela da, erromatarrek lurralde batzuk estrategikoki baztertu zituztelako.
b) Horrela da, bertako herriek erromatarren armada garaitu zutelako.
c) Horrela da, Euskal Herriko iparraldeko klima ez zelako erromatarren gustuko.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude

Ikusi ondoren

TALDEAN

3. Formala ala informala?

Elkartu hirunaka, irakurri erregistroen ezaugarriak, aztertu transkripzioa, eta esan testua formala ala infoemala den eta erantzun galderei.



Erregistro informala

Konfiantzazko testuinguruetan erabiltzen da, igorlearen eta hartzailearen arteko distantzia estua denean: lagunartean, familian, ezagunen artean... Bat-batekoa izaten da; sortu ahala egindako diskurtsoa da, edo prestaketa urria duena. Ohikoa da euskalkia eta hika erabiltzea. Freskotasuna, bizitasuna eta gertutasuna adierazten ditu, eta adierazkortasun handia izan ohi du. Hizkuntzari dagokionez, ohikoak izaten dira hauek:

+ Arrunkeriak (ze kristotaz ari gara...)
+ Makuluak (ba, ze...)
+ Errepikapenak (bai, bai, bai...)
+ Galderak, harridurak, onomatopeiak...
+ Esamoldeak, esapideak (falta zana!)
+ Maileguak (ze kutrea!)
+ Bukatu gabeko esaldiak
+ Elipsiak eta kontrakzioak (*in dia*)
+ Emozioak adieraztea: ziria sartu, adarra jo, haserretu, tristura edo poza adierazi...

Erregistro formala

Diskurtso planifikatua, antolatua eta neurtua du. Igorlearen eta hartzailearen arteko distantzia handia da: hartzailea ezezaguna delako, harreman pertsonala alde batera utzi nahi izaten delako, begirunea lehenesten delako...

Gaia espezializatua, teknikoa edo akademikoa izaten da. Euskara batua edo euskalki batua erabili ohi da (euskara jasoa). Freskotasuna, bizitasuna eta adierazkortasuna ez dira izaten horren nabariak.

Hizkuntzari dagokionez, erregistro formalaren ezaugarri nagusia da hizkuntza zaindua izaten dela, arauak errespetatzen dituena, jasoa. Beraz, erregistro informaleko ohiko zenbait baliabide (arrunkeriak, bukatu gabeko esaldiak...) ez dira onartzen.

Erregistro bakarra dagoela esango zenukete? Zergatik? Eman zerrenda batean hori arrazoitzeko adibideak.

Zergatik uste duzu erabaki duela egileak hala egitea?

Erantzun zuzenak 7.-8. orrialdeetan daude.

4. Erreparatu

TALDEAN

Elkartu hirunaka, aztertu adibideak, eta erantzun galderei.



evgeni-tcherkasski-SqsbTuo5jP0-unsplash.jpg

- ... **ez dute** ura **baizik** edaten eta lurrean egiten dute lo.
- ... inguru hori mineralak lor**tzeko baino ez** zen erabiliko...
- Erromatarrek Ebro inguruko lautadak **besterik ez zuten lehenetsi** nekazaritzarako.

1. Zuen ustez, zer adierazten dute nabarmendutakoek? Zergatik?

a) Ekintza bat.

b) Salbuespen bat.

c) Egoera bat.

_____

_____

_____

_____

2. Iruditzen zaizue hirurek gauza bera adierazteko balio dutela? Zergatik? Uste duzue hirurek egitura bera dutela edo berdin jokatzen dutela?

_____

_____

3. Singularrean, pluralean ala bietan egiten dute komunztadura? Egin aproba eta moldatu goiko esaldiak; gero, idatzi zuen iritzia.

_____

Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

5. Praktikatu

Elkartu hirunaka, irakurri azalpena eta adibideak, eta egin berridazketak.

1. Inguru hori mineralak lortzeko erabiliko zuten **(baino ez)**
Inguru hori mineralak lortzeko baino ez zuten erabiliko.

2. Baskoi gutxi batzuk sartu ziren erromatarren armadan **(besterik ez)**

_____

_____

3. Portu batzuk erabiltzen zituzten esportazioetarako. Ez beste lekurik **(baizik ez)**

_____

_____

4. Iparraldeko herri batzuetan sartu ziren erromatarrak, ez denetan **(baino ez)**

_____

_____

5. Ikasle batzuek ezagutzen zuten mito horren jatorria, beste inork ez **(baino ez)**

_____

_____

6. Ez zuten ardorik edaten, ura edaten zuten **(besterik ez)**

_____

_____

SALBUESPENA ADIERAZTEKO MOLDEAK

Hirurak erabiltzen dira salbuespena adierazteko, baina ez dute berdin jokatzen:

besterik ez

- Beti **NOR** kasuan doa; beste kasuren bat behar izanez gero, erabili *baino ez* edo *baizik ez*.

* Zurekin ***besterik*** **ez** du nahi
✅ Zurekin ***baino/baizik ez*** du nahi

- Singularrean egiten du komunztadura; adibidez:

*** Bost** ordu **besterik ez dira** falta
✅ **Bost** ordu **besterik ez da** falta

SALBUESPENAK:
a) *Izan* aditzarekin, subjektua plurala denean, aditza ere bai:
Noraezean dabiltzan plastikozko bolatxo**ak** icebergaren punta **besterik ez dira.**

b) Esaldi inpertsonaletan, aditza plurala izan daiteke:
✅ Induske**tak hasi besterik ez dira egin**, baina dagoeneko hainbat aztarna topatu dituzte.

baino ez* eta *baizik ez

- Singularrean zein pluralean egiten dezakete komunztadura; adibidez:

✅ **Bost** ordu baino/baizik ez **dira** falta
✅ **Miren** baino/baizik ez **da** etorri

Erantzun zuzenak 8. orrialdean daude.

TALDEAN

6. Egi erdia, gezurra?

Irakurri testuingurua, eta taldean zaudetela, egin gaiari buruzko solasaldia. Saia zaitez diskurtso informala egiten eta salbuespena adierazteko baliabideak erabiltzen.



Adimen artifizialak sortutako irudia

TESTUINGURUA

Podcast labur bat grabatuko duzue. Bertan, **mitoez** hitz egingo duzue: **hizpide izango dituzue txikitan egia zirela uste zenuten kontuak, gizartean zabalduta dauden ideiak eta historiari buruz entzun izan dituzuen kontakizunak.**

12-15 minutuko solasaldia egin beharko duzue, iritziak argudiatuta eta adibideak emanda.

IDEIA LAGUNGARRIAK

- Txikitan zer mito uste zenuen egia zirela? Noiz konturatu zinen ez zela guztiz egia? Nork kontatu zizun?
- Zergatik sinesten ditugu gauza batzuk?
- Uste duzue gaur egun ere mito berriak sortzen direla? Zein adibide ezagutzen dituzue? Sare sozialek laguntzen dute mito horiek zabaltzen?
- Zergatik sinesten ditugu mito batzuk? Errazagoa al da azalpen sinple bat sinestea, egia zein den ikertzea baino?
- Mitoek onurarik ekar dezakete? Beti dira kaltegarriak? Komunitate bat elkartzen lagun dezakete? Tradizioekin lotuta daude?

Irakasleak emango dizue feedbacka.

ERANTZUNAK

1. Mitoa ala egia?

a) Vikingoek adardun kaskoak erabiltzen zituzten gudetan.
Mitoa: Ez dago froga arkeologikorik gudan kasko adardunak erabiltzen zituztela esateko. Irudi hori XIX. mendeko opera eta obra erromantikoetatik hedatu zen, bereziki Wagnerren lanen bidez.

b) Napoleon baxu-baxua zen.
Mitoa: Napoleon garaiko frantsesen batez besteko altuerakoa zen (1,68-1,70 m inguru). Nahasmena neurri-unitateen arteko desberdintasunengatik eta britainiarren propagandagatik hedatu zen.

c) Erdi Aroan, jendeak uste zuen Lurra laua zela.
Mitoa: Erdi Aroko jakintsu gehienek bazekiten Lurra esferikoa zela; ideia hori Antzinarotik zetorren, eta XIX. mendeko kontakizun sinplifikatua da.

d) Walt Disney kriogenizatuta dago.
Mitoa: Ez dago horren frogarik. Walt Disney erraustu egin zuten 1966an, eta kriogenizazioaren inguruko zurrumurruak geroago sortu ziren.

e) Einsteinek matematikak suspenditu zituen.
Mitoa: Einstein ikasle bikaina zen matematiketan, txikitatik. Nahasmena sortu zen Suitzako nota-sistema desberdina zelako, eta oker interpretatu zelako.

f) Piratek partxea eramaten zuten begi batean, gaiztoago emateko.
Mitoa: neurri batean, egia izan daiteke. Litekeena da partxea erabiltzea begi bat iluntasunera egokituta edukitzeko, horrela ontzien barrualdera azkarrago moldatzeko, ez itxura beldurgarria emateko. Hala ere, ez dago froga sendo askorik.

2. Zer diote erromatarrei buruz?
1- b; 2- b; 3- c; 4- c; 5- a

3. Formala ala informala?
Oro har, bideoaren jardun gehienak erregistro formalaren ezaugarriak betetzen ditu, baina badaude, tartekatuta, adierazpide informal batzuk, gertutasuna edo umorea eransteko eta formaltasuna hausteko; bestela, zurruna izan daiteke-eta. Honako esamolde hauek dagozkio erregistro informalari:

- Gaurkoan zuekin: Teo Erroman.
- *Aizuek**
- *Klaro*
- Ba, ez!
- Zer demontre gertatu zen?
- egurtu genituen
- Barkatu magia apurtzeagatik.
- Izorrai!
- Barkatu, berriz ere.

ERANTZUNAK

4. Erreparatu

1- b

Bai, salbuespena adierazteko. Baina moldeak ez dira modu berean eraikitzen, *baino ez* eta *baizik ez* berdin egiten dira; *besterik ez*, ordea, desberdin. *Besterik ez* moldeak singularrean egiten du komunztadura. Gainerako biek singularrean zein pluralean egin dezakete.

5. Praktikatu

2. Baskoi gutxi batzuk **besterik ez** zen sartu erromatarren armadan.
3. Portu batzuk **baizik ez** zituzten erabiltzen esportazioetarako.
4. Iparraldeko herri batzuetan **baino ez** ziren sartu erromatarrak.
5. Ikasle batzuek **baino ez** zuten ezagutzen mito horren jatorria.
6. Ez zuten ardorik edaten, ura **besterik ez.**

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Egurtu genituen. Jipoitu genituen.
Gure herrialdeetako toponimia. Gure herrialdeetako lekuen izenak.
Adats luzea. Ile luzea.
Gudukatzeko orduan. Gerra egiteko, borroka egiteko orduan.
Beren zakartasun. Batere abegitsu ez izatea.
Izorra hadi! Hoa pikutara!
Horniketarik gabe utzi zuten. Armadak behar izaten dituen gauzak (janaria, armak...) gabe utzi zuten.
Beste herri batera lekualdatuz. Bizilekua beste herri batera bortxaz eramanez.
Meatze erromatarrak. Meak edo mineralak ateratzen diren lekuak.
Bidasoaren bokaletik. Bidasoa ibaia itsasoratzen den lekutik.

TRANSKRIPZIOA

Kaixo, historiazaleok. Ongi etorri Ikusgelara!
Gaurkoan zuekin: Teo Erroman. Barkatu, konfunditu (okertu) egin naiz.
Gaurkoan, erromatarrak euskal lurretan.

Aizuek*, ezertan hasi aurretik, zalantzatxo bat: zuek ere entzun al duzue inoiz erromatarrek ez gintuztela sekula konkistatu, edo nire gauza da? Klaro (Bai, ba), imajinatu euskaldun ausartak hor, behin eta berriro erromatarrak garaitzen, Leonidas eta espartarrak izango bagina bezala Termopilasetako (Termopiletako) pasabidean. Ba, ez!
Zer demontre gertatu zen, orduan? Gainetik pasa zitzaizkigun, egurtu genituen edo ondo moldatu eta gure etxeko ateak zabaldu genizkien? Ba, dirudienez, ez bata ezta bestea ere; eta, aldi berean, guztiak batera, edo bat bera ere ez.

Kontuak kontu, erromatarren eragina nabarmena da, gure herrialdeetako toponimia (toponimiak) edo arkitekturak erakusten duten moduan, besteak beste; baita gure hizkuntzan ere: adventum, abendu; castellum, gaztelu; corpus, gorputz; edo augurium, agur. Barkatu magia apurtzeagatik.

Erromatarrek gurean topatu zutena azaltzen duen hainbat idatzi topatu dira, tartean Estrabonena. Horrelaxe (Honelaxe) zioen: “Menditar hauek neurrikoak dira guztiak, ez dute ura baizik edaten, eta lurrean egiten dute lo. Adats luzea eramaten dute emakumezkoen erara, nahiz eta gudukatzeko orduan zirrindara (zinta) batez lotu kopetan. Beren zakartasun eta basatitasuna (basatasuna) ez zaizkie zor beren gerra-ohiturei soilik, baita beren urruntasunari ere, zeren lur horietara daramaten bideak luzeak baitira eta harreman zailtasun honek galarazi baitie soziabilitate eta gizatasun guztia”. Izorrai! (Izorra hadi!)

Eta nola demontre iritsi zire erromatarrak Euskal Herrira? Ba, kontua da Hanibal izeneko zoro bat elefantez osaturiko ejerzito (armada) batekin Afrikatik igo eta Pirinioak zeharkatzen ari zela erromatarrak jipoitzeko. Erromatarrak, ordea, oso bizkorrak ziren, eta Mediterraneoa zeharkatuz (zeharkatuta), Levanteko kostaldetik sartu ziren penintsulan, Hanibalen atzean kokatu eta honen espedizioa horniketarik gabe utzi zuten.

Behin penintsulan, bidaia aprobetxatu eta bertan geratzea erabaki zuten. Tarraconensis izan zen sortu zuten lehen herrialdea.

Behin penintsulan, hegoaldetik sartu ziren erromatarrak euskal lurretan, eta, egia esan, ez zuten erresistentzia handirik topatu. Batzuetan, ez zen liskarrik ere egon, eta badakigu baskoi batzuk, adibidez, erromatarren armada osagarriaren parte izatera ere iritsi zirela.

TRANSKRIPZIOA

Kristo aurreko 179. urte inguruan, Graccurris —edo Alfaro— sortu zuten. Hortik aurrera, hainbat hiri sortu zituzten gurean, gehienetan aurretik existitzen ziren herrixkak birsortuz edo bertako biztanleak beste herri batera lekualdatuz, hala nola Pompaelo —edo Iruñea—, Lapurdum —edo Baiona—, Veleia —edo Iruña-Veleia— edo Oiasso —Irun—.

Herrigune erromatar gehienak —Cabriana, Cascante, Soto de Ramalete...—ager edo lautadan kokatzen ziren —hau da, Ebro inguruko lurretan—, lur haiek egokiagoak baitziren nekazaritzarako. Saltus edo mendi inguruan, aldiz, ia ez da erromatarren arrastorik topatu; inguru hori bereziki mineralak lortzeko baino ez zen erabiliko: Arditurriko meatze erromatarrak, adibidez. Horretaz gain, portuak ere atsegin zituzten, Bidasoaren bokaletik, adibidez, itsasoz esportatzen baitzituzten euskal lurretan bildutako mineralak.

Eta hortik dator, agian, hasieran aipatu dizuegun mitoa. Euskal Herrian izan badira erromatarren konkistarik pairatu ez zuten zonaldeak (zonak), baina ez zen izan erromatarrak inteligentzia estrategiko zein militarrez garaitu genituelako, baizik eta erromatarrek ez zutelako interesik izan lur horietan. Barkatu, berriz ere.

*Aizuek: Euskarazko forma zuzena “Aizue” da. Aizuek Interneten eta sare sozialetan erabiltzen dute hainbat euskaldunek, modu informalean